




# bide- gorria egin!



**Amute–Mendeluko traba:  
konponbidea!**

Norberaren indarrez mugitu ahal izatea zentzuzko gauza da, naturala.

Horregatik uste dugu txirrintan mugitzea ariketa normalizatua izan behar duela.

Instituzioek bizikletaren erabilpena bultzatu behar dute eta indartu behar da eguneroko garraio modu gisa. Hiritarren mugikortasunaren etorkizuna ez da pasatzen errepideetan kotxeek duten espazioaren monopolioarengatik. Espazio publikoa denona da, eta partekatu behar dugu. Horretarako heziketa serioa behar da eskolatik hasita.

Bizikleta eta garraio publikoaren arteko konbinazioak aukera ematen du urrutirago bidaiatzeko. Hor dugu Donostia, Topoa eta Trenaren bitarteko loturarekin.

Zorionez bizikletaren eguneroko erabilera handitzen doa azken urte hauetan, eta horretarako bidegorriak, bai aisialdirako baino baitaere lanerako, eta eguneroko desplazamendurako diseinatuta egon behar dute. Eta horretarako segurtasuna, eta segurtasunaren pertzepzioa bermatu behar dira.

Hondarritik Irunera eta Hendaiara doana, eta aldierantziz ere, derrigorrez pasa behar du Amute–Mendeluko errepidetik. Egunero milaka desplazamendu. Zer esanik ez udaran. Guraso askok ez dute uzten seme–alabek bizikletan joaten hondartzara segurtasunaren faltarengatik.

Arriskua dagoela sumatzen du bizikletan doan txirrintulariak tarte horretan. Eta askotan espaloiara igotzea izaten da aukera bakarra txirrintularien segurtasuna bermatzeko. Eta orduan hasten da oinezkoen ezinegona eta arrazoizko haserrea, espaloiari txirrintak toreatzen ibili behar bait da.

Jasangarritasuna, ingurumena, ekologia, negutegi efektuko gasak murriztu... hitz eta esaldi guzti horiek jasota daude botere publikoen diskurtsoetan. Hondarribia eta Irun lotzen duen bidegorri hau Hiriko Antolamendurako Plan Orokorrean (H.A.P.O) aspaldian onartua dagoela.

zergatik itxoin?

La vía Hondarribia–Irun atraviesa obligatoriamente el núcleo Amute–Mendelu, donde se convierte en un verdadero embudo para el tráfico rodado.

Para los usuarios y usuarias de la bicicleta se convierte, además, en un tramo peligrosísimo que les obliga a usar las aceras con el riesgo que ello supone para los peatones.

El uso de la bicicleta en la vida cotidiana (ir a y volver de la escuela o el trabajo, hacer recados y gestiones, etc.) ha aumentado en los últimos años y debería ser aplaudido y promocionado por todos y muy especialmente por las instituciones. No podemos quedarnos exclusivamente en el diseño de vías verdes para uso deportivo y de ocio.

El concepto de movilidad debe alejarse de la idea del “crecimiento infinito” y del actual monopolio de los coches. Además del ahorro en emisiones contaminantes, debe subrayarse la autonomía que supone el uso de las propias fuerzas del ciclista.

Queda para el debate la relación del ciclista con los peatones y con el transporte público y sus combinaciones, transbordos, aparcamientos, etc.

Para un ciclista, desde Hondarribia es fundamental el acceso a Irun para conectar con Donostia (tren, topo...) y también con la vecina Hendaia.

En este tema, como en todos, es decisiva la educación continuada desde la infancia. Las instituciones tienen responsabilidad en ello y, además, deben poner los medios materiales y normativos para optimizar la comunicación entre pueblos y ciudades.

Hace muchos años que la conexión ciclable entre Irun y Hondarribia está aprobada en el Plan General de Ordenación Urbana (P.O.G.U.).

¿a qué esperamos?



## KULTUR ETXEA EDO LAGUNEN ETXEA?

2011. urtean Kultur Etxea inauguratu zenetik, bat baino gehiago izan dira herriko kultur elkarte eta Udalaren artean izan diren ulertu ezinak, eraikinaren zatirik handiena enpresa pribatu baten eskuetan gelditu zelako, batez ere. Mintzaira Musika Eskola Pribatua da enpresa hori, eta gaur egun ere berak kudeatzen du Kultur Etxea.

Urteetan atzera eginez, gogoratuko dugu 1996. urtera arte bazegoela Hondarribian Hondarribiko Musika Eskola izena zuen musika elkarte. 1994an, Fernando Buesa Hezkuntza Sailburua zenean, espezialitate gehiago eskaintzen utzi zitzaion elkarte honi, hala nola solfeoa, pianoa, biolina, flauta, txistua, akordeoia, klarineta, tronpetaxofoia eta gitarra.

1996an, Mintzaira Musika Eskola Pribatua jarri zioten izena, eta perkusioa emateko aukera ere eman zitzaion. Honenbestez, pixkanaka, gero eta ikasketa gehiago eskaintzeko aukera izan zuen enpresa pribatu honek, herriko musika ikasketen ia merkatu osoa lortuz.

“Eta alokairurik ez kobratzeaz gain, Udalak berak ordaintzen ditu Kultur Etxeak eragiten dituen uraren eta argiaren fakturak eta mantenu lanak, 60.000 euro, bataz beste, urtean.”

Eta egoera horretan iritsi ginen 2011ra. Urte horretan ireki zituen ateak bere arkitekturagatik hika mika bat baino gehiago sortu zituen eraikuntzak, gaur egungo Kultur Etxeak. Diru publikoz ordaindua, 6 milioi euro inguruko kostua izan zuen, baina Udalak Mintzaira Musika Eskola Pribatua enpresari eman zioten kudeaketa, ia modu eksklusiboan. Hori gutxi ez, eta 2014. urtera arte, gainera, ia 112.000 euroko diru laguntza jaso zituen urtero enpresa honek. Eta inolako hitzarmenik sinatu gabe, gainera, eraikuntzaren erabilera eta kudeaketa zehazteko.

Ez litzateke logikoagoa izango leku hori benetako Kultur Etxe bat izatea? eta kultur ekintza guztiek izatea lekua, musika ikasketek barne? Non daude herriko margolariak, zeramikariak, txotxongilo egileak, dantza eta antzerki taldeak, argazkilariak eta artearen gaintzeko esparruetan aritzen diren lagunak?

Kultur Etxe hau inauguratu zela badira bost urte, baina Hondarribiko Udalak ez dio gutxieneko alokairurik ere kobratzen irabazi handiak izaten ari den negozio honi. Eta alokairurik ez kobratzeaz gain, Udalak berak ordaintzen ditu Kultur Etxeak eragiten dituen uraren eta argiaren fakturak eta mantenu lanak, 60.000 euro, bataz beste, urtean.

Egoera honek ez du ez hanka ez bururik, eta ezin du horrela jarraitu. Hondarribiko Udalak azalpenak eman behar ditu behingoz. Garaia da Kultur Etxea bere izenak dioena izateko, eta ez orain dena, interes pribatu batentzako negozio biribila eta, bide batez esanda, interes publikoaren kontra dagoena.

Desde que en el año 2011 se inauguró Kultur Etxea, este centro ha sido foco de no pocas divergencias entre diversos colectivos culturales hondarribiarras y el Ayuntamiento ya que la mayor parte del volumen de dicho centro cayó en manos de una empresa privada, Mintzaira Musika Eskola Pribatua, que hoy por hoy sigue gestionando el centro.

Hagamos un poco de historia. Hasta 1996 existía en Hondarribia una asociación de carácter musical denominada Hondarribiako Musika Eskola. En 1994, siendo Consejero de Educación Fernando Buesa, se le autoriza la ampliación de especialidades, siendo éstas las de solfeo, piano, violín, flauta, txistu, acordeón, clarinete, trompeta saxofón y guitarra.

En 1996 pasa a denominarse Mintzaira Musika Eskola Pribatua, se acepta que puedan impartir también percusión. De esta manera sigue aumentando progresivamente el número de disciplinas a impartir y logra hacerse con prácticamente todo el mercado de la enseñanza musical del municipio.

Y llegamos a 2011, año de la inauguración del tan controvertido edificio. Kultur Etxea tuvo un coste que rondó los 6.000.000 de euros... y el Ayuntamiento, cede prácticamente en exclusiva a Mintzaira Musika Eskola Pribatua la gestión del edificio. Hasta 2014 encima tenían una subvención que rondaban los 112.000€ anuales. ¡Y sin haber firmado un convenio para su uso y gestión!

¿No hubiera sido más lógico que dicho edificio hubiera sido una auténtica Kultur Etxea donde tuvieran espacio todo tipo de actividades culturales, incluida la enseñanza musical? ¿Dónde están los pintores, ceramistas, artesanos de marionetas, grupos de danza y de teatro, fotógrafos, etc.?

Hoy por hoy, cinco años después de su inauguración, el Ayuntamiento de Hondarribia sigue sin

cobrar ningún alquiler por tan lucrativo negocio y además corre con los gastos de agua, luz y el mantenimiento del edificio pagando alrededor de 60.000 € anuales.

Este despropósito se tiene que acabar. Pedimos que la luz y taquígrafos entren en el Ayuntamiento de Hondarribia en este asunto y empecemos a dar los pasos para que Kultur Etxea sea lo que representa su nombre y no le que es ahora, un negocio redondo para los intereses privados que perjudica enormemente el interés público.

## LABURRAK:

AZKENEKO HILABETE HAUETAN ABOTSANITZEK HAINBAT LANKETA ETA MOZIO AURKEZTU DITU HONDARRIBIKO UDALAN, HONDARRIBIARRREN EGOERA ETA ESKAINTZEN ZAIZKIEN ZERBITZUAK HOBETU, ETA HERRIAN GERTATZEN DIRENEI BURUZKO AZALPENAK ESKATZEKO. HAUEK, LABUR LABUR, HAIETAKO BATZUK:



### JAIZKIBELGO HABITATETAN ETA MEGALITOTEGIETAN KALTEAK.

#### DAÑOS EN EL HABITAT Y ESTACIONES MEGALITICAS EN JAIZKIBEL.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015eko urria eta abendua artean Jaizkibel mendian egindako lanek kaltetu egin dituzte Justiz eta Gaztarrotz inguruko habitatak, baita Jaizkibeleko Megalitotegia ere. Makinaria astunaren bidez egindako lanek kalte larriak eta atzera itzuli ezinak eragin dizkie estazio megalitikoei.

Horregatik, eta Jaizkibel mendia Hondarribiko udal eremuan dagoen ezkerreko, eskaria egingo diogu Hondarribiko udaleko ingurumen zinegotziari Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Mendietako zuzendari nagusiarekin, Arantxa Ariztimuño Larraza anderearekin elkartu dadin, gertatutakoagatik azalpenak eta ardurak eskatzeko.



### MOZIOA. AMUTE-MENDELU AUZOETARRAKO PANTAILA AKUSTIKOAK.

#### MOCION. PANTALLAS ACUSTICAS PARA LOS BARRIOS AMUTE-MENDELU.

Amute eta Mendelu auzoetan aireportuak, N-638 eta GI-636 errepideek eragiten dituzten zaratak kaltegarriak dira herritarrentzat. Abotsanitzek horregatik bi mozio aurkeztu zituen martxoaren 17ko ohiko bilkuran ondorengoa eskatzeko: Hondarribiko Udalak esijitu diezaiela Gipuzkoako Foru Aldundiari eta AENARI neurriak har ditzatela zarata horiek herritarrengan eragiten dituzten kalteak gutxitzeko.

Abotsanitzek aurkeztutako mozio hauek aho batez onartu zituen Udalbatzak, eta pozik hartu dugu udal taldeen aldetik izandako jarrera.

Bide batez, gai honen jarraipena egingo dugula adierazi nahi dugu, arazo honek bi auzo hauetako bizilagunei eragiten dizkien eragozpenek konponbidea behar dutelako behingoz.



### IBILGAILUAK PORTUA AUZOAN.

#### COCHES EN PORTUA AUZOA.

Portua auzoan azken urteetan egin diren lanak direla eta, hainbat hobekuntza ikusi ahal izan ditugu: saneamendu instalazioaren berrikuntza, kaleen eta espaloien berriztatzea, oinezkoentzako gunek aproposak...

Aldaketa hauek ondorio zuzenak eta onak izan dituzte auzotar eta, orohar, herritar guztientzat. Baina egindako aldaketa guztiak ez dira onuragarriak izan.

Portua auzoan bertan nabarmenki murriztu dira autoentzako aparkalekuak, ibilgailuak uzteko lekuak murriztu dira eta, ondorioz, beharrak handitu. Hondarribiko Udalak konponbide



### MOZIOA. UNESCO IKERKETA BATZORDEA.

#### MOCION. COMISIÓN DE INVESTIGACIÓN UNESCO.

UNESCOK Hondarribia "Gastronomiako hiri sortzaile" izendatzeko hautagaitzaren balorazioa egiteko ikerketa batzorde bat eratzea eskatu nahi dugu mozio bidez. Zergatik? Gure herriak aurkezturiko hautagaitzak ezezkua jaso du, eta ezezko honen arrazoiek balorazioa behar dute, etorkizunean egin daitezkeen ekimeneetan emandako akatsak berriro gerta ez daitezen, besteak beste.

Bestalde, gai honen inguruan piztutako sua itzaltzeko, beharrezkoa da argibide guztiak bere osotasunean azaltzea eta gardentasuna eskatzen dugu horretarako.

Prozedura hau aurrera eraman duten pertsona eta erakunde guztien partaidetza eta adierazpena egitea ezinbestekoa da. Afera honen inguruko hausnarketa egitea ere beharrezkoa da.

Gardentasunari zor eta kudeaketa publikoaren jardura zuzenagatik, gai honen ingurukoak argitzea eskatzen du.

antzuak eskaini ditu orain arte, Bentako aparkalekuan auzotarrentzako auto-plaza gutxi batzuk eskainiz, besteak beste. Baina Udalaren benetako asmoa beste bat da, Bentako aparkalekua kentzea, hain zuzen ere, Donostia kalean egin nahi duen aparkalekuaren proiektuaren beharra dagoela sinestarazteko.

Hau horrela izanik, zera eskatzen du Abotsanitzek:

-Hondarribiarrek Portua Auzoan autoa aparkatzeko doako epe-muga izatea. Bertako merkataritza eta zerbitzu guneetara autoz iristeko aukera erraztea.

-Portua Auzo osoan TAO bidezko aparkalekua errotazio gune izatea, TAO egunak murriztuz.

-Santiago eta San Pedro kaleko auto zirkulazioa goizez irekia izatea.

-Trafikoa kontrolatzeko aitzakiarekin herrian ezartzen ari diren gehiegizko kamerak kentzea eskatzen dugu.



## ALDE ZAHARRERAKO LARRIALDI PLANNA.

### PLAN DE EMERGENCIA PARA ALDE ZAHARRA.

Alde Zaharra Hodarribian dugun auzo berezi bezain garrantzitsua da. Harresiz inguraturiko auzoa da eta bertan aurki ditzakegu Hondarribiko Hiria osatzen duten eraikin esanguratsuenetakoak, hala nola, Udaltxea, Zuloaga Etxea, Parrokia, Gaztelua, zenbait hotel, eraikin eta ezaugarri historiko ugari, besteak beste.

Ondare honez gain, bereziki kontuan eduki behar da hondarribiarren kopuru esanguratsu bat auzo honetan bizi dela. Horregatik ez dugu ulertzen nola ez den gaurdaino LARRIALDI PLANIK egin.

ABOTSANITZek ezinbestekotzat ikusten du Hodarribiko Udalak, ahalik eta lasterren, ondoko atal hauek jorratuko dituen LARRIALDI PLANA burutzea:

-Ebakuazio plana

-Emerjentziako ibilgailuentzako sarbide plana (ambulanzia, suhiltzaile, polizia...)

-Beharrezkoak diren elementu tekniko hori nidura eta mantenua (ura hartzeko guneak, elektrizitate ekipamendu, etab.)



## MARTXOAK 8, EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

### 8 DE MARZO DIA INTERNACIONAL DE LA MUJER TRABAJADORA.

Lanbide, euskal enplegu zerbitzuko datuen arabera, Hondarribiko langabezia tasa %10,4koa zen martxoaren 1ean, 857 langabetu guztira. Horietatik erdiak baino gehiago, 497, emakumeak dira. Kopuru horri gehitu behar zaizkio familia arloko beste hainbat ardura (etxea, etxeokak eta mendekotasuna duten senideak) duten emakumeen kopurua.

Murrizketa sozialek okertu egiten dute herritar hauen egoera, eta Hondarribia ez da salbuespena.

Hori dela-eta ABOTSANITZ taldeak zera eskatzen dio Udal Gobernuari:

-Udalak susta ditzala emakumeek modu duinean lan egiteko kooperatiba eta lan esparruak. Bada gainera Hondarribiko hainbat emakumek 2014an egindako proposamen bat, Foru Aldundiko Langileria Teknikariak bideragarria ikusi zuena, eta gazte eta baserriarrentzako kooperatiba ideiarekin lotu zuena. 100.000 euroko partida izendatu zen hartarako.

-Berdintasun teknikariaren kontratazioa arintzea; teknikari horrek koordinatu beharko ditu Hondarribirako berdintasun plana eta erakundeen arteko koordinazio protokoloa, besteak beste, herrian gertatzen diren indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko.



## TXINGUDIKO ZERBITZUAK MANKOMUNITATEA.

### MANCOMUNIDAD SERVICIOS DE TXINGUDI.

Mankomunitateko batzarraren irekiera alderdi politiko guztiei irekitzea positiboa bada ere, ezin dugu ahaztu Txingudiko Zerbitzuak S.A.ren Administrazio Kontseiluan alderdi politiko guztien parte hartzea ere beharrezkoa jotzen dugula. 2016. urterako, 23.466.140 €tako aurrekontua duen mankomunitateak eragin zuzena du Hondarribiko zein eskualdeko herritarrengan.

- Txingudiko Zerbitzuak erakundeak atera duen hiru lanpostuen lan eskaintzaren baldintzetan ez da euskaraz jakitea eskatzen. Abotsanitzek lan eskaintzaren oinarriak aldatzea eskatu du.

- Txingudiko Zerbitzuak Kantauriko Ur Konfederakundaren (CHC) Plan Hidrologikoari jarritako helegiteak direla eta, San Anton urtegia hornitzen duen Endara errearen gutxieneko emari ekologikoa ia erdira gutxitzea ekarri du.

- Txingudiko Zerbitzuak gerentziak atzera bota du Abotsanitzek Hondarribian mankomunitateko bulego bat ireki eta herritarrei zerbitzu zuzena eskaintzeko eskariari. Argi dago Hondarribia eta hondarribiarrak bigarren maila batean daudela Mankomunitatearentzat. Tasen ordainketetan, aldiz, ez dago desberdintasunik.

## HONDARRIBIKO ETXEBIZITZA PUBLIKOA

Etxebizitza duin eta egokia izatearen eskubidea unibertsala den arren, gaur egun ez dago erakunderik hau bermatzeko ahalmen edo borondate praktikorik duenik. Espekulazioaren bitartez etxebizitza negozio bilakatu da azkenengo hamarkada luzeetan eta eskubidearen oinarria ezerezean geratu da, hutsaren urrena da. Adreiluan oinarritutako ekonomiak hondoa jo izanak ez du orekatu etxebizitzaren salneurria, eta soldatek ematen diguten erosteko ahalmenetik urruti daude, proportzioan, etxeen prezioak.



Gehiegizko kapitala merkatuan txertatzeko hipoteka-kreditu asko eta oso malguak eman dituzte banketxe eta kutxek krisia baino lehen, etxebizitzaren salmenta bultzatuz eta alokairuaren aukera baztertuz. Zaila da aurkitzea hipoteka-krediturik ez duen inor. Alokairu librean bizi diren herritarrak ere ezagutzen ditugu, baina alokairuan jartzen diren etxeen eskasia kontutan hartuz, eta bizi garen herrian bizi garelako, hauen errentak oso altuak dira. Lana dugun bitartean eta egin beharreko ordainketak egin ditzakegun bitartean gaitz erdi, baina izandako krisi ekonomikoak oso egoera larrian utzi ditu hainbat herritar eta familia, langabezian eta prekarietate gordinean.

Ezagutu ditugu etxebizitza eskubidea gauzatzeko eta salneurri orekatuagoa bilatu asmoz egin diren promozio publikoak ere. Baina erakundeek babes ofizialeko promozio publikoekin herritarren benetako babesa bilatzen badute, asko dute hobetzeko oraindik. Lurraren sal-erosketa prezioan, adjudikazio sisteman eta kontrolean, batetik; eta jarrera aldaketa batean, bestetik. Gure ustez publikoak diren promozioek alokairuzkoak izan behar dute. Hobetsi eta indartu egin behar dira, jabetzaren aurrean.

Hondarribian, hamarkada bat baino gehiago pasa da Komentuaurreko promozioa egin zenetik Muliaterko promozioraino. Eta herritarren eskaria berezko eskaintza baino handiagoa denez, ezin daiteke promoziotik promoziora hainbeste urte utzi. Norbanako, bikote, familia edo gazte orok du beharra eta eskubidea etxebizitza batean bere bizitza antolatzeko eta gaur egun nekez eskaini daiteke baldintza eta prezio duin batean etxebizitzarik. Ahaleginak egin, egiten badira ere, ez dira nahikoak, behar hori beti egongo baita. Eta egia bada administrazio publikoak pertsona duela helburu, bestelako jarrera batekin jokatu behar du, eta egoera honi aurrea hartu.

Etxebizitza publikoaren joan etorrian etxebizitzaren kontrola eguneratua izan behar da eta hau gauzatzeko baliabide guztiak jarri behar dira mahaiaren gainean. Hondarribian etxebizitza publikoen bigarren eskuko zozketa izan bada ere, eta zozketa data zehaztu bada ere, Udalak ez du, hainbat kasutan, behar bezala joka-

tu. Denbora epeak agortu ditu, bere eskumenetik hainbat etxebizitza pasatzen utzi ditu, eta jarrera hau arduragabea eta onartezina da. Etxebizitza publiko hutsak baditugu Hondarribian, eta eskumena Udalarena edo Eusko Jaurlaritzarena izan, egoera hauek ahalik eta azkarren zuzendu eta koordinatu behar dira, etxe horiek zirkulazioan ahalik eta azkarren jartzeko.

Alokairu sozialerako diru kopuru bat ere bideratzen du Udalak aurrekontuen bidez, baina azken urteetan ez du arrakasta handirik izan, eta zergatuei buruzko hausnarketa eta diagnosia egin behar dira. Alokairua sustatu behar da, politika publikotik alokairu soziala bultzatu behar da. Horrelako ekimenek hondarribiar askori lagunduko die, bakarrik bizi direnei, guraso bakarreko familiei, familiak, gazteak eta behar handiagoa dutenei.

Datorren urteetan Muliater II etxebizitzaren promozio publikoa ezagutuko dugu. Salmentako etxebizitzaren zozketa jada egin badago ere, bertan 32 etxebizitza alokairuzkoak izango dira. Erdia udalarena eta beste erdia eusko jaurlaritzarena izango dira. Hondarribiko Udalak alokairuzkoa etxebizitzaren kudeaketa eta kontrola bere gain hartzea espero dugu. Herri eta Udal baten kudeaketa bere osotasunean ulertzen baitugu.

